


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2024-04-26 / 813 ZENBAKIA / 20. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



"Lehoi Erregea"
musikala Saroben,
Magale-Salestar
ikastetxeko
ikasleen eskutik / 13

Santa Krutz jaiak
iristear dira
Andoainen. Egitaraua
eta protagonistak,
gehigarri berezian

Legebiltzarrerako
hauteskundeetan
EH Bildu nagusitu da
Andoainen
eta Urnietan / 4



Gipuzkoa Bertsoan txapelketan ariko da Andoni Mujika Izagirre

Urnietarrak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako atarikoan abestuko du / 2-3

APIRILAREN 12tik
MAIATZAREN 12ra
EUSKARAZKO FILM LABURREN
XXI.ZIRKUITUA · 2024

**LABUR
BIRA**

Tokia: BASTERO
Eguna/Ordua: Maiatzak 9, 19:00etan
Antolatzailea: ANDOINGO Udala

| | | |
|---|---|--|
| ERRO Amoia Lejarreta | DENA ASMATUTA DAGO Joné Arrlola | MUNDU BERRI BAT Mikel Álvarez |
| KATALINAREN ZORIA Guillermo Ordás | ZIRRARA Ane Cuesta | TALKAK Ilune Diaz eta Jordi Nuet |
| BABESA Ander Iruretagoyena | BETIZU BURU Kim Maiteny Munoa | |

www.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udaberrian sartuta, martxan da, bost urteren ostean, Gipuzkoako Txapelketaren aurre sailkapen fasea. 20 saio izango dira guztira eta, bertatik, puntuazio handiena lortzen duten 34 bertsolariak izango dute aukera berriro ere udazkenean oholtza gainera igotzeko. Tartean da Andoni Mujika Izagirra *Anatx* urnietarra. Eztarri sendoz erantzun ditu galderak, nahi izan duen doinu eta neurrian.

Ostiral honetan ekingo diozu, bost urteren ondoren, berriro ere Gipuzkoako Txapelketaren sailkapen faseari. Nola bizi dituzu oholtzara igo aurreko azken egunak?

Gogotsu. Nahiko luze jotzen du txapelketaren fase honek, jende askok hartzen dugulako parte. Lehenengotarikoa naiz ni abesten, eta, eguna gerturatu bezala, gogoak biderkatzen zaizkit. Pentsatzen dut urduritasunak etorri, etorriko direla, baina, momentuz, ez.

Zer nahiago, sailkapenaren hasieran abestu edo amaiera aldean?

Eskolartekoetan-eta ibili izan naiz, gaztetxotan. Normalean, azken saioetan parte hartzea egokitu zait. Hori ere ez nuen gustuko. Beraz, nahiago dut lehenengotarikoa izan. Bat entzun, ni kokatu eta, jarraian, abesteko. Ondoren, lasaiago joaten naiz lagunak entzutera.

Non jarri indarrak bezperako egunetan?

Betikoa egin ohi dut. Normalki, astean behin biltzen gara; asteazkenetan egiten dugu hitzordua. Batzuetan, ostegunetan ere bai. Orduan, aste honetan, lagunekin bildu naiz, elkarrizketa jarri, entzun eta jardun. Ez dut azken astean bestelako miraririk egiteko esperantzarik. Hor-taz, joan eta jardun.

Batez ere, garai batean, esaten zen txapelketaren bezperako egunean ez zela abestu behar, edo buruari ez zitzaiola eragin behar, atsedean hartzeko asmoz. Bada, ni ez naiz horren aldekoa. Ohituta nago asteazkenetan zein ostegunetan hara joaten; horregatik, astero egiten dudun jardunari eutsi nahi diot.

"Elkarri entzun eta, lagun aurrean, jardun", esan didazu. Epailan-epailan ere aritzen al zarete?

Ez, noski, puntuekin, baina elkarrizketa gomendioak ematen dizkiogu, "nik horrela egingo nuke" edo "beste era honetara eutsiko nioke gaiari". Teknikoki ere

"Bertsotan egiteko plazer hutsez noa txapelketara"

ANDONI MUJIKAZAGIRRE "ANATX" BERTSOLARIA

Gipuzkoako Txapelketaren aurreko sailkapen fasea hasi berri da. Ostiralean, oholtza gainera igoko da "Anatx". Gogotsu bezain ambizioz ekingo dio jardunari



Ostiral honetan, taula gainera igoko da Gabirian, arratsaldeko 19:00tan hasiko den saioan. AIURRI

"ekarpenak egiten ditugu kla-seetan, baina gutxiago. Gehiago izaten dira gaia bideratzeko moduari dagokionez: "Ederra bota duzu, baina niri ideia hau etorri zait burura" edo "oso ona zen, baina, ideia hori amaierarako utziz gero, indar handiagoa hartzen du arrazoiak".

Gustuko dut, gainerakoei gaia jartzean, nik zer esango nukeen pentsatzea. Zerbait polita bururatzeko bazait, partekatu egiten dut besteekin. Beharrezkoa dela iruditzen zait, eta asko eskertzen dut.

Ostiral honetan, Gabirian ariko zara. Ezagutzen al zenuen lehenik ohol-tza hori?

Lehen aldia dut Gabirian. Inguruan izan naiz, Osinalde Sari-keetan. Kanporaketan abestu izan dut, Ordizian edo Zaldibian, adibidez, baina finalean ez dut abesteko aukerarik izan. Sona handia du herriak, eta oso gustura nago, diotenez, abesteko ederra delako.

2019ko txapelketan ere partekatu zenuen ohol-tza ostiralean alboan izango dituzun zenbait kiderekin. Mainer Arregirekin, esaterako.

Bai, Oñatin abestu nuen Mainerekin, txapelketan. Oso gustura nago taldearekin. Ez ditut guztiak ezagutzen, ez naiz denak entzundakoa, baina, gutxi gorabehera, kokatzen ditut. Oso oso gustura nago. Zuk esandakoa ondokoak bere bertsoan aintzat hartzea dut gogoko. Hor gozatzen dut nik. Gaur egun, ez dute hori guztiak egiten, baina hori ikusten dut ostiraleko taldean.

Herri txikietatik abiatuko da txapelketa. Zer nahiago, tamaina txiki-kiko hitzordua ala jendez lepo dagoen plaza batera igotzea ohol-tzara?

Saio jendetsuak ikusgarriak dira, baina oso gogoko ditut plaza txikiak. Joan den txapelketako aurre sailkapen-fasea Errezilen egin nuen. Bete egin zen. Jendearen harrera nabari duzu, jendearen goxotasuna. Gabirian, antzekoa biziko dudala uste dut.

Atzera begira jarrita, final zortzirenetaraino iritsi zinen 2019ko txapelketan. Gustura gelditu al zinen egindako lanarekin?

Gustura gelditu nintzen egindako txapelketarekin. Udaberriko sailkapenean nahiko larri pasa nintzen. Baina, udazkenean, saio oso txukuna egin nuen. Gogo handiz nintzen, eta urduritasun txikiarekin.

Irakaspenik atera al zenuen?

Nahiko jolastia naiz. Bertsoan egiteko plazer hutesez noa txapelketara. Txapelketak lehia dakar, noski, eta burua pixka bat estuzera eramaten zaitu horrek. 2019an, bertso-eskolan baino gehiago exijitu nion, bai, baina, akaso, ez behar beste. Oraingoan, jolasti joango naiz, plazerez, baina gogoan dut neure burua estutzeko. Ea zer ateratzen den.

Askotan, bertso perfektuaren bila joaten gara, eta gaia "aulkia" baldin bada, aulki horren atzean dagoen horren bila hasten gara. Eta, azkenean, gaizki ateratzen da. Neure burua estutu nahi dut aurre sailkapen fasean, baina aulkia aulkia da eta mahaia mahaia. Aulkiaren atzean zer dagoen, bilatuko dut, akaso, txapelketara pasatzen banaiz. Momentu honetan, gauza xumeetatik zerbait polita ateratzen ahaleginduko naiz.

Aurten, aurreikuspenik bai?

Momentukoari begiratzea dut gustuko. Aurrera begira jarriz gero, aldiz, oso txapelketa polita datorrela uste dut. Bost urte igaro diren honetan, jende berri dezente dator, eta helduen artean, bada utzi duenik ere. Txapelketa erakargarria dauka aurretik. Gogoz nabil, batez ere plazan aritzen den jendea txapelketaren testuinguruan entzuteko. Ez da, txapelketara ohituta gauden bertsoakera bat, soilik, entzungo, aurreko fase honetan, behintzat. Horrek aberastu egiten du bertsolaritza

Sailkapen faseko gainerako bertso-saioetara joateko ohitura al duzu?

Bai eta, batez ere, ingurukoena. Entrenatzen dudana jendearen saioak entzutea joaten naiz, ondoren, hurrengo batean eseri eta "hau horrela egin zenuen, eta hau horrela", errebaso egiteko. Zalea naiz, bai. Aurreko fase honetan, saioa tokatzen den herriko bertso eragileei luntx moduko bat antolatze eskatu zaie. Giro polita sortuko da bertan, bai entzuleekin, bai bertsolariekin, zerbait jan-edanez.

Denbora-tarte luzea daramazu Hernaniko bertso-eskolan ikasle gisa, baita, tarteka, irakasle jardunean ere. Bertako zenbatek hartuko duzue parte oraingo sailkapen honetan?

Eli Pagolak, Ekain Tolaretxipik, Andoni Rekondok, Iker Ormazabalak eta nik neuk hartuko dugu parte aurre sailkapen fasean. Gerora, beste batzuk ere



Urnietarra, kantuan, 2019ko edizioan. Errezil. AIURRI

sartuko dira, Asier Azpiroz, Eñaut Martikorena, Agin Laburu... Gustuko dut gero elkartzea, eta elkarrekin komentatzea.

Etxea ere eskola ona izan duzu zuk. Aitona Pedrok Xoxokan arrasto ederra utzi omen zuen. Aita ere oholta gainera igotakoa da.

Hernanin, Txirritarekin jardundakoa ere ba omen zen aitona. Nolanahi ere, etxean ez dugu sekula bertsoan egin. Aitona zalea zen bertso zaharrak abesten. Mordoxka kantatzen zituen, bazkaltzen edo afaltzen, mahaia-aren bueltan. Inork gutxi eza gutzen ez dituenak zituen buruan. Aitak gutxiago, ez du ohiturarik. Kasuren batean, ezer prestatu gabe amaitu izan dugu elkarrekin bertsoan, baina bizpahiru aldiz. Gehiago izan da etxetik kanpo egingandako zerbait, eta nahiago dut horrela izaten jarraitzea.

2024. urtea berezia omen Gipuzkoako Bertsozale elkartearentzat, mende erdia betetzen delako lehen bertso eskola sortu zenetik. Zenbateko garrantzia dute, zure ustez, bertso-eskolek bertso-ekosisteman? Erabatekoa. Pisu handia dute eta izango dute. Beste indar ba-

"TXAPELKETA HONETAN JENDEAREN HARRERA NABARI DUZU, JENDEAREN GOXOTASUNA"

tekin datoz, bai bertsolaria, bai bertsozalea. Bertso-eskolak bi aldeei bultzada ematen die, ikusgarritasuna. Sei-zazpi urte eman ditut Hernanin bertso-eskolako irakasle. Aurten, Iker Ormazabal dabil buru-belarri eta hiru ikasletik hamahiru izatera igaroda. Beharrezkoak dira bertso-eskolak.

Eskola izateaz ez ezik, belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko erremintak ere badira, ezta?

Batez ere gazteak bildu ohi gara, baina bai, oso polita da. Asier Azpiroz irakasle eduki nuen, esaterako. Orain, bere alboan abesten egon ahal izatea, ederra da. Ekain Tolaretxipiren irakasle izan naiz urtetan, eta, orain, txapelketara elkarrekin goaz.

Gipuzkoan, plaza asko galdu zituen bertsolaritzak 2020an, pandemia medio. Egun, martxa hartzen ari da berriro ere. Nola bizi duzu zuk egoera, oholta gainera begiratuta?

Ez zait asko egokitu oholta gainera begiratzea. Izan ere, ez ditut saio asko egiten. Orain, zenbait herritan, gazte saioak ari dira sortzen. Jaialdiak antolatzean, betiko zortzi onenak dabilta. Gu, ordea, ez. Orere-

"GIRO POLITA SORTUKO DA GABIRIAN, BAI ENTZULEEKIN, BAI BERTSOLARIEKIN"

tako bertso eskolak, hilabetean behin, uste dut, saio bat egiten duela, plaza gutxi ditugun bertsolariok. Iruran ere hasi direla esango nuke. Gazteek bertsoan egin nahi dugu jendaurrean. Horrek ere diskurtso berriak ekarriko ditu, ziur. Akaso, punta-puntakoa ez den bertsolariren bat edo beste tokatuko da, beharbada, baina, tartean ere ale ederrak utzi ditzazke.

Hori ere bada bertsolaritza, alegia, trabatzen den bertsolaria ere bada bertsolari...

Txapelketaren beroketa gisa hitzordua egin genuen Harituzekoek eta guk. Lauzpabost aldiz trabatu nintzen, seguru, bertan. Zergatik ez ba baimendu zeure buruari horrelako saio batean trabatzen? Horrela ere ikasten da, hurrengoetarako.

2019az geroztik egingo den lehena izango da. Bertsogintzari indarra emango al dio txapelketak?

Bultzada handia ematen dio. Lehiaketa hasi aurretik nabari da jendearen jakin-mina, gogoan. Alabaina, txapelketa igarota ere bertan dirau bertso-goseak. Bete egingo dira aretoak.

"HERNANIN, TXIRRITAREKIN, BERTSOTAN JARDUNDAKOA IZAN ZEN AITONA"



Aurtengo irudia. UNAI GAZTELUMENDI

Urnietan sortutako irudia

Unai Gaztelumendi añorgarra Urnietan bizi da eta berea da Gipuzkoa Bertsotan txapelketaren irudia. Bertsozale elkarteak zabalduko bideoan, irudi hori lantzeko ideia azaldu zuen egileak berak:

"Enkargua jaso nuenean, aurtengo txapelketaren abiapuntua zein zen azaldu zidaten. 50 urte atzera sortu zen lehen haurren bertso eskola omendu nahi zutela adierazi zidaten eta, segituan, etorri zitzaidan irudi bat. Uztaipide ageri zen, garai hartako bertso eskola ezberdinetan ikasitako ikasleekin batera. Argazkia topatu nuen eta irudia, marrazki bilakatu nuen. Bertsolaritza molde batean ulertzen dugunok, iragana zuribeltzarekin lotzen dugu eta iragan hori Uztaipide oso ondo irudikatzen du. Argazki horretan bertsolari kontsagratua eskua ematen ari zait bertsozalaritza berriari. Gu geu hortik gatoz, orduan, Uztaipiderek batzen gaituena irudi hori da".

Unai Gaztelumendi, bertsolaria eta sortzailea

Azken urteotan, bereziki, ilustrazioaren eta komikiaren arloan ari da. Besteak beste, Aiurriko komiki-tira berak egiten du. 2024an hasita, Garbiñe Ubedaren lekukoa hartu zuen. "Txokotik zabalera" izena du atalak, eta Aiurri eta Euskal Herriko hainbat tokiko hedabidetan argitaratzen da.

EH Bildu, garaile, Andoainen eta Urnietan

Urnietan, bigarren aldiz jarraian, EH Bildu nagusitu da. Andoainen hegemoniko bilakatu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izan ziren igandean, eta EAJ-PNVko Imanol Pradales hautagaia izan zen boto gehien jaso zituen hautagaia. Atzetik, hurbil eta ordezkari-kopuru berarekin, EH Bilduko Pello Otxandiano.

Jeltzaleek, beraz, aginteari eutsiko diote eta ia ziurtzat ematen da sozialistekin hitzarmena berrituko dutela. Batek baino gehiagok antzeko ondorioa aterako zuen igandeko emaitzak jakin eta berehala: inkestak inkesta, betikoak agintean. Emozioa egon da kanpainak iraun duen hamabostaldian eta, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrean jeltzaleek eta sozialistek eutsiko diote gehiengo osoari.

Baina bada lehen ondorio horretatik harago egin beharreko analisia. Urnietan, esaterako, ezohikoa da jeltzaleak bigarren postuan ikustea. Igandean, EH Bildu nagusitu zen. Bigarren aldiz jarraian, lehenak dira. Espainiako Kongresurako bozetan ere nagusitu zirelako. Ez dela ezer gertatzen pentsatuko du askok, baina detaile horiek adierazgarriak dira. Eta, etorkizunera begira, abisua izan daiteke jeltzaleentzat eta, itxaropenarako aukera, EH Bildukoentzat.


Andoainen, EH Bildu, eta, gero, besteak

Horixe da, esaldi bakarrera mugatu behar bada, igandekoak eta azken hauteskundeek zehazten duten egoera. 2012tik hona, inoizko emaitzarik onena lortu dute Eusko Legebiltzarreko hauteskudeetan. 2000 botoen langa aise igarota, 3000 botoa gerturatzen ari dira. Hegemoniko ageri da EH Bildu, Andoainen. Bigarrena nor izan, jeltzaleen eta sozialisten arteko lehia hortxe da. Oraingoan, txapeldunorde, jeltzaleak.

Andoingo emaitzak

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak 2024 - Andoain

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Emaitzak

Eskrutinioa: %100,00

| Alderdia | Botoak | Ehun. |
|-------------------|--------|--------|
| EH Bildu | 2.772 | %42,74 |
| EAJ-PNV | 1.620 | %24,98 |
| PSE-EE | 1.106 | %17,05 |
| PP | 335 | %5,17 |
| SUMAR | 241 | %3,72 |
| Ekarrekin Podemos | 181 | %2,79 |
| VOX | 107 | %1,65 |
| PACMA | 29 | %0,45 |
| EB-AZ | 20 | %0,31 |
| IZAN | 5 | %0,08 |
| PUM+J | 5 | %0,08 |


Fitxa

| | |
|---------------------------|------------|
| Hauteskudea | ELIS2024 |
| Eguna | 2024/04/21 |
| Errolda | 11.274 |
| Eskrutinioa | % 100,00 |
| Boto-emalleak | 6.540 |
| Abstentzioa | %41,99 |
| Baliogabeak | 55 (%0,84) |
| Zurlak | 64 (%0,98) |
| Hautagal-zerrenden botoak | 6.421 |

Urnietako emaitzak

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak 2024 - Urnietan

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Emaitzak

Eskrutinioa: %100,00

| Alderdia | Botoak | Ehun. |
|-------------------|--------|--------|
| EH Bildu | 1.053 | %38,30 |
| EAJ-PNV | 934 | %33,58 |
| PSE-EE | 378 | %13,75 |
| PP | 131 | %4,77 |
| SUMAR | 91 | %3,31 |
| Ekarrekin Podemos | 54 | %1,96 |
| VOX | 33 | %1,20 |
| PACMA | 24 | %0,87 |
| EB-AZ | 11 | %0,40 |
| IZAN | 3 | %0,11 |
| PUM+J | 3 | %0,11 |

Fitxa

| | |
|---------------------------|------------|
| Hauteskudea | ELIS2024 |
| Eguna | 2024/04/21 |
| Errolda | 4.924 |
| Eskrutinioa | % 100,00 |
| Boto-emalleak | 2.774 |
| Abstentzioa | %43,66 |
| Baliogabeak | 25 (%0,90) |
| Zurlak | 34 (%1,23) |
| Hautagal-zerrenden botoak | 2.715 |



Apirilaren 30ean, asteartearekin, Santa Krutz jaien hasierako pregoia irakurriko dute. Igandera bitarte, ospakizunik ez da faltako. Ohi bezala, Aiarri.eus webgunean jaiaren jarraipen berezia egingo da. AIURRI

ASTEARTETIK IGANDERA, ANDOAINEN, SANTAKRUTZAK

Arropa eta osagarriak

Gora Santa Krutz jaiak!

Kale Nagusia, 6
ANDOAIN
943 591 224



"Zailtasun guztien gaineratik oso pozik gaude antolatutakoarekin"

Maiatzaren 2an, ostegunarekin, Kuadrilla Eguna ospatuko da. Askorentzat Santa Krutz jaietako egun seinalatua da. Ohikotasunetik irten eta beste modu batera antolatzeko saiakera egin du talde-eragileak



2018ko Kuadrillen Eguneko irudia.

Mikel Arberas ANDOAIN

Iragan urteko lanari jarraipena ematea kosta al zaizue?

Talde polita osatu genuen iaz, eta gustora lan egin genuen. Aurtengoan, lan horri jarraipena ematea suertatu zaigu, baina lehengo urtean baino ardura handiagoa hartu behar izan dugu. Taldekide guztiok hartu dugun konpromisoa handiagoa izan da. Ondo antolatu garelako uste dugu, bilerak denborarekin egin ditugu, ia astero, eta lan-banaketa efizienteki kudeatu dugu.

Hasieratik, Kuadrilla Egunari buelta bat eman nahi izan diogu, ohikotasunetik irten eta beste modu batera antolatzeko.

Kuadrilla Eguneko lan-taldea gogotsu al dago?

Bai, herrikide asko bezala. Gure artean, behintzat, nabari da Santakruzak gainean ditugula. Neurri berean, urduritasun apur bat ere sumatzen dugu, batez ere, Kuadrilla Egunerako, guztia modu egokian irteeta nahi baitugu. Gure artean emozio ezberdinak suma daitezke.

Zailtasunak eduki dituzue aurtengo Kuadrillen Eguna antolatzeko orduan?

Bai, jakina. Antolaketa-lanetan hasten zaren momentuan ohar-tzen zara ez dela horren erraza egun osoko egitarau bat osatzea. Hala ere, lehen esan bezala, gure helburua Kuadrilla Egunari buelta bat ematea izan da, eta, hasiera batean, fantasiazkoak ziruditen ideia batzuk errealitate bilakatu ditugu. Beraz, zailtasun guztien gaineratik oso pozik gaude.

Egun gutxiren faltan, azken uneko prestaketa-lanetan al zabilzate?

Bai. Azken orduko deiak osatzen eta zalantzak argitzen ari gara. Horrez gain, egunerako beharrezkoa den materiala biltzen eta mugitzen gabiltza. Esanak esan, oro har, guztia prest dago, itxita.

Kuadrilla Egunetik zer nabarmen-duko zenukete?

Oso pozgarria da ikustea Andoaingo gazteak nola biltzen diren mahaiaren edo jokoen bueltan, guztiak elkarrekin eta

giro ezin hobean. Antolatzailerok harrিতa geratzen gara, esaterako, bazkarian zenbat gazte elkartzan diren; gainera, hainbat kuadrilla jolasetan parte hartzen ikustea oso pozgarria iruditzen zaigu. Kolore festa ederra sortzen da. Esandako guztiaz gain, aurtun, lehen aldiz antolatu dugun sorpresatxoa nabarmendu nahiko genuke. Eta eguna amaitzeko, Kaparrak musika taldeaz gozatzeko aukera edukiko dute andoaindarrak. Ikusiko duzue!

SALDIAS
ARRANDEGIA

Gora Santakruzak!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704

Euskal Herriko trofeoa KEINUko txapela da!!!

Goikoplaza, 5. ANDOAIN.
637 283 224
keinuandoain@gmail.com

f i

GORA SANTAKRUTZAK!

KeiNU

Gora Santakruzak!

Ondarreta

• Plater konbinatuak • Bokatak • Pintxoak

943 593 627

Ondarreta kalea, 9 - ANDOAIN

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakruzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com



Musika-estilo ugari, aurtengo Santa Krutz jaietan

Lehenengo egunean, Arrixku eta Gozo Gozo taldeak igoko dira oholtzara. Eta, hurrengo egunean, besteak beste, Elektropottote, Nikotina, Hofe 4:40 eta Babarrunba taldeak. Disko Jartzaileak ere ez dira faltako

Mikel Arberas ANDOAIN

Santa Krutz jaietan ikusmira handia sortu ohi dute musika-taldeek. Izan ere, dirutza erabili ez arren, eskaintza interesgarria egon ohi da festetan, askotariko musika-motarekin. Aurtengoan ere horrela izango da.

Iragan urtean, zer esan handia eman zuten, bereziki bi kontzertuk: Malkogarriyak eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek. Bekoplaza eta Zumea goraino bete zuten, herritar askoren gozamerako. Horiek horrela, aurtengo

musika-eskaintzak ere andoaindar askoren begiradak erakarri ditu, eta ez da gutxiagorako. Asteartetik igandera bitarte, hainbat kontzertu eta musika-emanaldi egingo dira.

Astearte arratsaldean hasiko dira jaiak Irunberri Kultur Elkarteak botako duen txupinarekin batera. Bada, gauean, Arrixku taldea izango da lehena, punk, rock eta erromeri kutsu soinuarekin. Ondoren, Gozo Gozo erromeri talde andoaindarrak azken kontzertua emango du.

DJ Bull, aurten, Irunberri tabernan

Asteazkenean, atsedena hartu nahi ez duenarentzat, DJ Bull entzuteko aukera edukiko du Irunberri tabernan, gaueko 22:00etatik aurrera.

Ostegunean, Kuadrilla Eguanean, gauean, Kaparrak talde "atxabaltarra" taularatuko da, runba erritmoko kantuekin. Eta, ondoren, DJ Naza arituko da, plaza girotzen.

Santa Krutz egunean, ostira-lean, Elektropottote taldeak



Igotz Hofe musikari nafarrak Bekoplaza lehertuko du. BEATBURGUER

girotuko ditu kaleak; iaz, ikusmira handia sortu eta jendetza batu zuen kaleetan.

Nikotina eta Hofe 4:40, ostiral gauean

Gauean, jaietako talde ezagunenak izango dira protagonista: lehena, rap, reggae eta dancehall musika motak uztartzen dituen Nikotina taldea izango da. Ondoren, Hofe 4:40 musikari nafarrak lehertuko du plaza, underground kutsua duen musika elektronikoarekin.

Larunbatean ere ez da asperetzeko astirik izango. Arratsaldean, Zumea plazan, Bomber, Ibandevice eta Shaker DJak musika jarriko dute. Gauean, berriz, erromeria eta techno-elektronika musika motak izango dira protagonista, Muxutrukekin eta DJ Fresa Morangorekin.

Azken egunerako gogotsu dagoenarentzat ere bada zerbait gehiago; sagardo-txapelketaren amaieran, Babarrunba taldea izango da Zumea plazan.



BAIETZ GABE, EZETZ DA JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!! EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA

Andoainen dago nahi duzun guztia.
Ondo pasa!

Gora Santa Krutz jaiak




S2

SALKIN
bertatik bertara



MIZPIRADI
-SAGARDOTEGIA-

Gora Santakruzak!

943 59 39 54

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus



SEI EGUNEKO OSPAKIZUNAK SANTA KRUTZ JAIETAN

APIRILAK 30

ASTEARTEA

16:00 Haur pregoia eta txokolatada Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.

18:30 Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsa,

Plaza Moretik abiatuta eta eta Gora Kaletxiki txarangak lagunduta. Zumea plazan amaituko da kalejira.

19:00 Pregoa eta txupinazoa Zubiaurren Irunberri Kultur Elkarteak botata.

19:30 Zumeatarra elkartearen danborrada, elkartetik bertatik abiatuta.

19:30 Txosnen irekiera Bekoplazan.

19:30 Harri-jasotze txapelketa herrikoia Bekoplazan: III. Santakruz harri txikia.

20:00 Olagain Udal Txistulari Bandaren kontzertua Santa Krutz ermitan.

23:00 04:00 Arrixku eta Gozo-gozo taldeen Kontzertuak Bekoplazan.

MAIATZAK 1

ASTEAZKENA 1

08:00 Gautxorien txaranga, Juanita Alkain plazatik abiatuta.

08:15 Gautxorien argazkia, Espigoian.

10:30 Kros herrikoia, Bixente Huiziren omenezkoa. Irteera: Zumea plaza.

11:30 Haur krosa, Zumea plazan.

12:00 Txirrindularien lasterketa, Kaleberrian.

12:30 "Ez gaude ahaztuta", Joxe Ramon Ansaren oroimen ekitaldia Espigoian.

17:00 Erreka jaitsieraren iritsiera Santa Krutz eliza ingurura.

16:30 Haurrentzako Txorotxaranga klajira, Juanita Alkain plazatik.

18:30 Bizikleta festa, Zumea plazan. Euriarekin Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

18:30 Herri danborrada, txosnagunetik abiatuta.

21:45 Zezensuzkoa, Mairi iturriaren paretik abiatuta.

MAIATZAK 2

OSTEGUNA KUADRILLA EGUNA

11:30 Kuadrillen arteko jokoak, Bekoplazatik hasita. Txarangak lagunduta.

14:00 Kuadrillen bazkariko ate irekiera, Bekoplazan.

14:00 Kuadrillen bazkaria bekoplazan. Euriarekin, Zumea plazan.

17:00 DJ ibiltaria! Bekoplazatik hasita.

17:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarretako jolastoki estalian.

19:00 Tabernen arteko X. Pintxo txapelketa.

19:30 Plaza dantzak, Juanita Alkain plazan.

22:00- 04:00 Kaparrak taldearen kontzertua. Ondoren, DJ Naza Bekoplazan.

MAIATZAK 3

OSTIRALA SANTAKRUTZ EGUNA

10:30 Dultzaineroen saioa.

10:30 Banderaren jaitsiera: udal korporazioa, eskopeteroak eta txistulariak lagunduta.



Enkarguak jasotzen ditugu

gozotegia

Santa Krutz jai
zoriontsuak igaro!

arruti

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN



Aita Larramendi Ikastola

Jaietan ere ekin euskaraz

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainkastola.eus



Gora Santa Krutzak



Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain



Gozo Gozo taldearen agurra, Santa Krutz jaietan

2010ean Andoaingo zazpi neska-mutilek musika taldea osatu zuten. Lehenengo emanaldietako bat, hain zuzen, jaietan izan zen. Hementzerako erreparatuta, honako hauxe, kideek gogoratzen zutena: "Etxean eta gertukoaren aurrean izanik urduri samar oholtzaratu ginen, baina gero oso gustura aritu ginen. Jende asko bildu zen: kuadrillak, gure etxeok... Lagun asko dantzan ikusi genituen, eta hori poztekoa da". Zikloa borobilduz, jaietan agurtuko dira.

10:30 Ezpata-dantza Santa Krutz zubian.

11:00 Meza, Santa Krutz elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin.

11:00 Eskopeteroak. Ondoren, ezpata-dantza eta brokel dantzak, zubian.

12:00 Txakolin dastaketa, Espigoian. Euriarekin, Bekoplazan.

12:00 Andoaingo trikitilarien kalejira, Plaza moretik.

16:00 Jokai, egurrezko jokoak, Espigoian. Euriarekin, Zumea plazan.

19:00 Jira Bira haur diskojaia, Zumea plazan.

20:00 Elektropottote elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.

23:00-04:00 Kontzertua: Nikotinaren. Ondoren, Hofe x 4:40.

MAIATZAK 4

LARUNBATA

10:30 Artisau azoka Zumea plazan.

10:30 Eneko Martiarenaren oroimenezko xake txapelketa Juanita Alkain plazan.

11:00 Musika eskolako akordeoien kalejira, Plaza Morean hasita.

12:00 Bertso eskola eta txalaparta, Zumeatik.

12:00 Kantu kalejira, Plaza moretik Zumea.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Euriarekin, Zumea plazan.

16:30 Ondoren, La jodedera.

17:30 Puzgarriak Zumea plazan.

18:00 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.

19:30 DJak Zumean: Bomber, lbandevice, Shaker.

22:30 Santa Krutz Peña elkartearen danborrada.

23:00-04:00 Muxutruk erromeria eta DJ Fresa Morango.

MAIATZAK 5

IGANDEA

11:00 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia, Zumea plazan.

12:00 Udal musika eskolako Banda, Juanita Alkain ondoan.

13:00 Bermoutha eta DJ Ezekiel Bekoplazan.

17:00 Sagardo txapelketa Zumea plazan.

17:00 Basataloak Zumea plazan.

19:00 Babarrunba taldea Zumea plazan.

21:45 Zezensuzkoa, Zumea kaletik.

22:00 Festa amaiera, Zubiaren.



KIWI CORNER ENGLISH

Osadarreta 7, behea (Andoain)
943 30 08 39 688 76 35 70
info@kiwicorneracademy.com

CAMBRIDGE PRESTAKUNTZA ZENTRU BAIMENDUA
WWW.KIWICORNERACADEMY.COM

INGELES ESKOLA

FIRST ETA ADVANCED PRESTAKUNTZA
IKASTARO TRINKOAK EKAINA ETA UZTAILAN

2024/25 IKASTURTERAKO AUREMATRIKULA IREKITA!



TXINDOKI TABERNA




**KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954**

J A T E
T X E A
T A B E
R N A

ONDO PASA FESTETAN





ORMENDI KIROLAK

943 59 18 06

Gora Santa Krutzak





Amaren eguna



"Mahai guztiak erreserbatuta ditugu"

ANITA VENERO DANENA TABERNA

Otorduetarako erreferentziatzko ostalaritza-gunea da Danena Taberna. Jaietan, herrikideen topaleku bilakatzen dira tabernak

Erredakzioa ANDOAIN

Ostalaritzak zeresana badu jaietan. Festazale askoren topaleku zenez, bertako langileek lan handiagoa izaten dute.

Santakruzak gainean ditugula nabaritzen al duzue giroan?

Oraingo, ez gehiegi. Aurreko asteburuan nahikoa lan izan dugu, baina hauteskunde giroa nagusi zen.

Gehienbat egunez egiten duzue lan. Nola doaz erreserbak?

Dena beteta dugu. Jaiak irau bitarteko bazkariak eta afariak lotuta daude, honezkerok.

Zuen kasuan, lana eta festa batez batera da, ezta? Gozatzeko aukerarik baduzue?



Anita Venero, Danena tabernako barran. AIURRI

Tarte txikia eskaintzen diogu gozamenari. Laneko txanda amaituta, atseden hartzea gogoko izaten dugulako. Nire lanaldian, gehienbat, gaupasaz daudenekin egotea dagokit eta besteek nola gozaten duten ikusiz gozaten dut.

Bakailao txapelketan epaimahai-kide zara. Nolako esperientzia da? Oso gogokoa zait niri. Eta, gainera, laneko girotik aldentzeko baliagarria zait. Zarata dago kalean eta gu elkarrean egoten gara bakailaoa dastatzen. Sortzen den giroa oso gogoko dut.

Maila handia al dago?

Denetik dago, baina, orokorrean, maila oso ona dute bakailao txapelketara aurkezten direnek.

Zer esango zenieke herrikideei?

Atseden har dezatela orain, jaiez gozatu ahal izateko. Eta, ahal dela, kontsumo handia egin dezatela.

"TXAPELKETA HONETAN JENDEAREN HARRERA NABARI DUZU, JENDEAREN GOXOTASUNA"



Gurutze Gorriko kideak, iaz, zainketa lanetan. AIURRI

Aurten ere birritan aterako da jaietan Zezen-suzkoa

Maiatzaren 1ean eta 5ean, birritan, Lebiton konpartsako kideek zezen-suzkoa aterako dute kaleara. Bi egunetan gaueko 21:45tan izango da irteera-ordua. Ikusmin handia pizten duen ekitaldia da, bereziki, haur eta gaztetxoaren artean. Lebiton konpartsak, gainera, erraldoi eta buruhandien kalejira egingo du jaien hasieran. Zehazki, asteartean, arratsaldeko 18:30ean hasita.

IKAI VANS
EST. 2022

Balastrain Matxines 4, 9 pabilioia
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tfn. 943098132
info@ikaiivans.com

Urrats
inprimategia

Jaietarako prestatu

Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...
Egin zuen kuadrillako ezaugarria

Urrats: 688 61 85 48
urrats@urratsinprimategia.com

LEIZARAN

Gestión Inmobiliaria

Gora Santakruzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak



Pizzak eta kroketak, aukeran, txosnagunean

Txosna Batzordeak, aurten, eskaintza berria abiarazi du: afaltzeko tartea eskainiko die festazaleei. Kuadrillan nahiz familia-giroan afaltzeko aukera izango da, beraz, aurtengo jaietan

Erredakzioa ANDOAIN

Santa Krutz jaietako eremu esanguratsuetakoa da Bekopla-za. Zehazki, bertan jarritako txosnagunea. Azken urteotan, gainera, txosnen eta taula-gainaren artean karpa edo olanapea egokitu dute. Euritik eta haizetik babestutako tokia da, eta eguraldiak hala baldintzatuta izan denean, txakolin-dastaketa bertan egin izan da. Txosna Batzordeak, aurten, gune horretan eskaintza berria abiaraziko du: afaltzeko tartea eskainiko die festazaleei. Kuadrillan nahiz familia-giroan afaltzeko aukera izango da, beraz, aurtengo jaietan.



Azken urteotan, txosnen eta taula-gainaren artean karpa edo olanapea egokitu dute. AIURRI

Pizzak eta kroketak jateko aukera izango da apirilaren 30ean eta maiatzaren 2an, 3an eta 4an. 20:00tan otorduak eskaintzen hasiko dira, gauerdira bitarte. Zer esanik ez, bertan afaltzeko mahaiak eta aulkiak izango dira. Lehen aldia denez, formula berriaren egokitasuna neurtzeko aukera aproposa izango da.

**AFARIAK
ESKAINIKO DITUZTE
APIRILAREN 30EAN
ETA MAIATZAREN 2AN,
3AN ETA 4AN**



Lore-eskaintza, Ansaren omenez. AIURRI



Ugartemendia, 2007ko jaietan. AIURRI

Ansa gogoan hartuko dute jaietan, eta baita maiatzaren 6an ere

Upategi baserriko Joxe Ramon Ansa Etxeberrria andoaindarra 1979ko maiatzaren 6an erail zuen Triple A talde armatu ultraeskuindarrak. Santakruzak ospatzen ziren, urte hartan. Iaz, haren lagunek omenezko ekitaldia antolatu zuten. Maiatzaren 1ean, jaietan, ekitaldia egingo dute Espigoian. Eta, maiatzaren 6an, hil zuten tokira hurbiltzeko gonbita luzatu dute.

Ugartemendia gogoan hartuko dute aurtengo jaietan

Aitziber Ugartemendia abenduaren 16an zendu zen, eta bere galerak arrasto sakona utzi du Andoain. Omenaldi berezia eskaini zioten otsailean, eta baita Korrikan ere. Jai Batzordeko kidea izan zen urte luzez. Horregatik, aurtengo Santa Krutz jaietan, gogoan hartuko dute. Maiatzaren 5ean izango da, Espigoian. Ekitaldi berezia izango da, gertukoek antolatuta.

Gora Santakruzak!

AMABI

haur eta gazte jantziak
0-16 urte

+

HĪKA WOMAN
ONLY WOMAN

♀ SISTERS DEPARTMENT

Zumea kalea, 15. ANDOAIN. 943 57 31 62

Gora Santa Krutzak!

GONZALEZ SASTRE

Kale Nagusia 26 ANDOAIN

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Gora Santakruzak!

Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxa: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostegunera: . . . 09:00-19:00
Ostiralean: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

adats

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796



"Festetan ere, hartu ardura eta zaindu jarrerak!"

Jai Batzordeak, Txosna Batzordeak eta mugimendu feministak agerraldi bateratua egin dute, jaietarako adostu duten protokoloa iragartzeko: "Ez jaietan, ez inoiz, ez dugu jarrera matxista, sexista, homofobo, arrazista ezta bestelako eraso motarik onartuko"



Agerraldia egin zuten Zumea plazan, aurreko larunbatean. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Erasoen aurrean erantzun bateratua emateko lanketa aurkeztu zuten, aurreko larunbatean, agerraldi bateratuan. Bertan ziren, nagusiki, Jai Batzordeko,

Txosna Batzordeko eta Andoaingo mugimendu feministaren ordezkariak: "Hilabeteak daromatxagu txosnagunean erasoen aurrean esku-hartzeko protokoloa birpentsatu eta lantzen. Au-

rreko urtean, mugimendu feministak hartu zuen ardura. Aurtent, pausu bat aurrera egin eta jaiak antolatzen gabiltzan eragile desberdinekin elkarlanean aritu gara; Jai Batzordea, Txos-

na Batzordea eta mugimendu feminista. Garrantzi berezia du, besteak beste, ardura eta kontzientzia hedatu eta erasoen aurrean dugun erantzukizuna jaien bueltan gabiltzan guztiok hartzea ezinbestekoa baita. Denbora eman dugu lanean, hausnarketan, formakuntza-saio zein eztabaidan, guztion artean elkarlanean".

Erasoen aurrean, antolatuta daude

Garbi utzi nahi izan zuten hori, agerraldian: "Egun bakoitzeko protokolo arduradunak egongo dira txosnagunean eta erasoren bat jasan, ikusi edota lekuko izaten bazara, txosnako barrara hurbildu eta beraiengana bideratuko zaituzte. Gainera, aipatu beharra daukagu, Kuadrilla Egunean, bertako antolatzaileak izango direla protokolo arduradunak, beraz, egun osoan ere, beraiengana jo daiteke eraso baten aurrean".

Erasoak gertukoaren artean ere ematen direlako, ohartarazpena egin dute: "Protokoloa sortu, landu eta jaietan antolatu beharraz nazkatuta gaude. Erasotzaileak daudelako egiten baita; gure inguruan, kuadrillan... Beraz, hartu ardura. Ez jaietan ez inoiz, ez dugu jarrera matxista, sexista, homofobo, transfobo, bifobo, arrazista ezta bestelako eraso motarik onartuko. Auto-defentsa transfeministaz armatuta gaudela aldarrikatu nahi

BAIETZ GABE, EZETZ DA SI NO ES SI, ES NO

ERASO MATXISTEN AURREKO ARRETA-ZERBITUA

GUNE MOREA

676 567 724

PUNTO MORADO

SERVICIO DE ATENCIÓN ANTE AGRESIONES MACHISTAS

Apirilak 30, maiatzak 1, 2, 3, 4

30 de abril, 1, 2, 3, 4 de mayo

de 20:00 a 08:00 horas

Zumea Kalea, 1

ANDOAINGO UDALA

C/ Zumea 1

Gunea iragartzeko afitxa. UDALA

Gune Morea, Zumea kalean

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1etik 4ra Gune morea martxan jarriko du Andoaingo Udalak, iluntzeko 20:00tik goizaldeko 08:00etara. Santa Krutz elizaren ondoan izango dira.

dugu, antolatuta gaudela eta ez garelako isilduko. Elkar-zaintza erdigunean, gozamen eta gune erosoak eraikitzen jarraituko dugu, jai askeak nahi ditugulako denontzat".

Bizi Santakrutzak!

Gozatu jaiak, baina ez izan konplize!
Jaietan eraso sexistarik ez!

ANDOAINGO UDALA



Jorge Segurado alkatea, Consuelo Frutos Gizartekintza zinegotzia eta Itziar Olazabal Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoa. AIURRI

Zaintzari buruz hausnartu nahi du Urnietako Udalak

Herriko zaintza-ekosistemari erreparatu nahi dio Urnietako Udalak, Gizarte Zerbitzuek gorpuztuko duten “plan partekatu eta kolaboratibo” batekin. Hala, 16 urtetik gorako herritar guztiei galdetegi bat bidaliko zaie etxera

Erredakzioa URNIETA

Partaidetza-prozesu gisa irudikatzen dute egitasmoa, “non beharren diagnostikoa egiteaz gain, datozen urteetarako ibilbide orri bat diseinatuko den”. Horren berri emateko, prentsaurrekoa egin zuten udaletxean joan den asteartean. Matia Institutuaren eta Zabalduz Kooperatibaren aholkularitza izango du ekimenak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako finantziarioari esker gauzatu ahal izan da, Zaintza HerriLAB esparruaren barruan. Horrez gain, Europar Batasunaren finantzaketa ere badu.

Urnietako bizilagunei eta erakundeetara zuzenduriko prozesua da, “era berean, zaintza-kateko kide diren eragile komunitarioek ere parte hartuko dute”. Hala, 16 urtetik gorako herritar guztiei galdetegi bat bidaliko zaie etxera, eta maiatzaren 26ra arte entregatu ahal izango da udalerriko hainbat puntutan ipiniko diren buzoi eta kutxetan: Bertan, Lekaio, Kiroldedia, Sarobe eta Elkarteen Etxea, besteak beste. Bestalde, aukera egongo da gal-

detegia online betetzeko, bai udalaren aplikazioan, bai webgunean.

Urnietako Udalak azaldu duenez, tokikotasunetik, osasunerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak integratzea du xede proiektuak, “zaintzak behar dituzten pertsonen eta zaintza horiek eskaintzen dituzten pertsonen eta profesionalen beharretatik abiatuta”. Pertsonekin ez ezik, sistemekin ere lan egin nahi

duela adierazi du Urnietako Udalak: “Zaintzak erdigunean jarritz eta zaintzaren kultura partekatua sortuz, non udalerriko jarduerak eta politikak sostengatuko diren”.

Parte hartzeko ezarritako epea amaitu ostean, eta, jasotako ekarpenak aztertu ondoren, aurkezpen publiko bat egingo du Urnietako Udalak, “udalerrian zaintza-eredu berri bat garatzen hasteko bidean ateratako ondorioen berri emateko”.



Entsegu laneta murgilduta daude, asteotan. SALESTARRAK

"Lehoi Erregea" musikala, ostiral honetan, Saroben

Magale Salestarrak ikastetxeko DBH 1eko ikasleek, musikala ezagunean oinarrituta, bi saio egingo dituzte

Erredakzioa URNIETA

Estreinaldiaren atarian gaude, eta burubelarri dabilta prestaketa-lanetan: "Azken asteetan, ikasleak lanean buru-belarri aritu dira. Izan ere ugari dira horrelako emanaldi baten atzean dauden betebeharrak; agertoki-

ko apainketa-elementuak sortu, opariak egin, koreografiak asmatu eta entsegatu, interpretazioa ikasi eta ahozkotatzen landu, besteak beste. Ikasleen artean gogoia eta ilusioa sortzen duen proiektua da". Emanaldi bikoitza izango da: 17:00tan eta 19:00tan.



BIZIPOZA JAIA

HERNANI (Gipuzkoa)

2024

Apirilak 26

GUDARIEN ENPARANTZA

15:15 BADATOR BIZIPOZA JAIA!
Hernaniko ikastetxeen eskutik

Apirilak 27

BIZIPOZA JAIA!!

ATSEGINDEGI PLAZA

10:30-14:30 BIZIPOZAKO ELKARTEen gunea

10:30-14:30 BIZIPOZA jolasa

10:30-14:30 "Euskal tonbola" DOBERA EUSKARA ELKARTEaren eskutik

11:00 GO!AZEN-eko lagunen ikuskizuna

11:30 HERNANIKO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA herrian zehar

11:45 TTARLA DANTZA TALDEaren dantza emanaldia

12:30 HERNANIKO MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIAK herrian zehar

12:45 BIZIPOZAKO ELKARTEEI eskertza eta aitortza ekitaldia

13:30-15:30 Paella jatea PAUSOKA ELKARTEaren eskutik

16:00 ZAPOTXIN, PORROTX ETA MARIMOTOTSekin irri, kantu eta dantza

17:30 MERIENDA

18:00 ITZAL TALDEarekin erromeria

URBIETA KALEA - TAILERREN GUNEA

10:30-14:30 KANIKA AISIALDI TALDEaren, ARATZ IKASTOLAren eta GAZTELEKUaren
haurrentzako tailerren gunea

12:00 HERNANIKO BOLEIBOL TALDEaren "Hartubol" erakustaldia

BITERIKO PLAZA

10:30-14:30 BIZIPOZAKO ELKARTEen tailerrak

12:15-14:30 HERNANI BURUJABEren Altxorraren bila



ZEINU HIZKUNTZA
ZERBITZUA ESKAINIKO
DA JAIALDI OSOAN
ZEHAR



BIZIPOZA
OSATZEN DUTEN
ELKARTEAK

ANTOLATZAILEAK

IKASTETXEAK

BABESLEAK



PAUSOKA
ELKARTEA



Urumea eskola

TXIRRIITA ESKOLA



Hernani BHI



ARATZ



Orona
Fundazioa



mitxelena



Topaketak Gipuzkoako hainbat udalerritan egin dituzte. GIPUZKOA FUTBOLA

Futbol inklusiboko topaketa, Urnietan, igande honetan

Desgaitasuna duten eta ez duten haurrei eta gazteei zuzenduta dago. 11:45ean hasiko da, futbol-zelaian

Erredakzioa URNIETA

Zortzi urtetik gorako haurrentzat esperientzia berria izango da. Antzeko esperientziak ikusita, lezio ederra hartu ohi dute neska-mutilek. Futbola, gogoko duten kirol jarduera izanik, beste modu batera ezagutzeko aukera izango baitute. Enpatian

sakontzeko aukera bikaina da. Andoainen eta Gipuzkoako hainbat udalerritan antzeko jarduerak egin izan dira. Oraingoan topaketa Urnietan da, Gipuzkoako Futbol Federazioak, Aldundiak eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak antolatuta. Eta, nola ez, UKEren laguntzarekin.



Urnietakoa igande honetan da, 11:45tan Urnietako futbol zelaian hasita. GIPUZKOA FUTBOLA



Mikel Iturria artxiboko irudian. AIURRI

Mikel Iturria txirrindulariak erorketa larria izan zuen Italian

Romagnako Itzulian erorketa larria izan zuen, igandean. Geroztik ospitalean da urnietarra

Andoni Urbistondo URNIETA

Lehenik osatu, eta gero gerokoak. Hori du buruan Iturriak, orduotan. Ez da gutxirako, kolpe ugari baititu Romagnako Giroan igandean izandako erorketaren ondorioz. Egun hauetan, taldeko medikuak Forli hiriko Morgagni-Pierantoni erietxeko medikuekin harremanetan izan dira. Litekeena da hurrengo orduetan txirrindularia Euskal Herrira ekartzea. Bertan egingo dizkiote proba berriak eta ziurtzat jotzen da ebakuntza egin behar izatea. Horrek, ondorioz, txirrindularitzan aritzeko aukera atzeratuko da. Ikusi behar, hurrengo orduetan, zein den egoera.

Etxekoek arduratuta jarraitu dute, igandiaz geroztik, erorketaren ondorengo egoera. Zorionez, Mikel Iturria uneoro kontziente izan da eta etxekoekin harreman zuzena izan du. Horrek lasaitu ditu, neurri handi batean.

Mikel Iturriaren lekukotza, ospitaletik bertatik

“Helmugara iristeko 300 metroren faltan, RAI telebista kateko motoa errepidearen ezker aldean geratu zen. Ibilgailuei dagokion zeharbidea hartu ez zuenez, bertan geratzea erabaki zuen. Izan ere, motoak helmuga zapalduz gero isuna segurua du. Nire taldetxoa 8. postuaren lehian zegoen eta halakoren batean txirrindulari batek motoa jo eta nik ezin izan nuen libratzeko ezer egin. Lesioak badituz, eta une honetan txorkatila eta peronea eskaiolatu dizkidate. Etxera iristean errebisio berria egin beharko dut eta, ziurrenik, ebakuntza egin beharko didatela adierazi didate medikuek. Ospitalean egin behar dizkidaten proba guztiakin gaur amaitzea espero dut, eta hori eta gero etxerako itzulera antolatzen hasiko gara”.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Ane Amutxastegi
Urte askuan etxekoan partetik, muxu bat eta ondo pasa Santakruzak. Etxekoak.



ANDOAIN
Jon Etxezarreta Jauregi
Jonek 11 urte beteko ditu maiatzaren 4an. Zorionak txapeldun!

Aparteko bilera deitu dute Andoaingo parrokiek

Androsia Olabide eraikinean egingo da bilkura, ostegun honetan, 18:00etan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Donostiako Elizbarrutiko Mikel Aranguren bikarioa eta beste zenbait ordezkari bertan izango dira. Ostegunerako antolatuta duten bilerak Donostiako Elizbarrutiak abian jarri duen "Bidean" izeneko hausnarketa prozesuari lotuta dago. Azken aldirian, Elizbarrutian mintegia burutzen ari dira, emakumeek, etorkizunean, Elizaren instituzioan hartu beharreko tokiaren gainean gogoeta egiteko. Hainbat aditu (teologoak, soziologoak...) parte hartzen ari dira. San Martin, Santa Kruz eta Sorabillako hiru parrokiak bilera hurbiltzeko gonbita luzateko ados agertu dira.

Ospakizunez beteriko asteburua, Andoaingo Txuri Beltz tabernan

Ostiralean bingoa izango da. Eta, larunbatean, ekitaldiak egun osoan: eguerdian, jolasak eta bazkaria; arratsaldean, urdaiazpikoa eta kontzertua. Igandean, berriz, mus txapelketa. Zuzenean ariko den taldea Loak izenekoa da. Legazpiko bost musikari beteranoz osatuta, pop-rock estiloa jorratzen dute. 19:00tan hastekoa da emanaldia.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

andoaINDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 25

ANDOAIN Matrikulazioa

Urria-azaroan Galardi Haurreskolan hasiko diren haurrak matrikulatzeko epea zabalik dago. Instalakuntzak ezagutzeko aukera dago, 943 300 655 telefono zenbakira deituta.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Bisitarien Etxea

Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik da. Apirilean eta maiatzean asteburuetan martxan izango da.

Ordutegia: 10:30-18:30.

Leitzaran Bisitarien Etxea.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Bakarrizketa

Sara Escudero.

20:00, Bastero.

GABIRIA Bertsolaritza

Gipuzkoa Bertsotan txapelketa abiatu da "Anatx" Urnietako bertsolari gaztearen parte-hartzearekin. Sarrerak 7 eurotan salgai daude Bertsotzale elkartearen webgunean.

19:00, Kultur Etxea.

ANDOAIN Bakarrizketa

Sara Escudero.

20:00, Bastero.

LEITZA Topaketak

Euskal Herriko Bollotopaketak antolatu dituzte. Eztabaidarako, hausnarketarako eta elkar ezagutzeko topaketak izango dira.

Asteburu osoa, Leitza.



Kantazaun taldea. AIURRI

URNIETA Kantazaun taldearen kalejira

Euskal kantutegia biziberritzeko modurik eraginkorrena lau haizetara zabaltzea da. Kalez kale, herriz herri. Urnietan, hilabeteko azken ostiralarekin bat eginez, Kantazaun taldea kantuan ariko da. San Juan plazatik abiatuko dira, udalerrian barrena jarraitzeko.

Apirilak 26, ostirala. 19:00, San Juan plaza.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Bisitaldi gidatua

"Oroimenaren lekuak", Frankismoko biktimekin lotutako kontakizunak, Oroituz elkarteak antolatuta.

10:00, Goikoplazatik abiatuta.

URNIETA Rubik txapelketa

Rubik txapelketa. Ordutegia: Larunbata, 09:00-21:00.

Igandea, 09:00-14:00.

Apirilak 27 eta 28. Lekaio.

HERNANI Ospakizuna

Bizipoza jaia, egun osoko jaia. Egitaraua, 14. orrialdean.

Egun osoko ospakizuna.

IGANDEA 28

URNIETA Topaketak

Futbol inklusiboko topaketa.

11:45, Urnietako futbol zelaia.

ASTEARTEA 30

ANDOAIN Santakruzak

Egitarau osoa, 8-9. orrialdean.

16:00, Haur pregoia Zumea plazan.

ASTEAZKENA 1

BILBO Manifestazioa

EHKSk manifestazioa antolatu du.

11:00, bus-irteera Makaldegitik.



ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Pajaros
Lar, 27. 19:30,
22:00.
Ig, 28.
19:30.
Astl, 29. 19:30,
22:00.

Pequeñas cosas indiscretas

Lar, 4. 19:30.
Ig, 5.
19:30.
Astl, 6. 19:30,
22:00.

El especialista

Lar, 11. 19:30,
22:00.
Ig, 12. 19:30.



SINOPSIS



Pajaros

Zuzendaria: Pau Dura. **Gidoia:** Pau Dura, Ana M. Peiro. **Aktoreak:** Luis Zahera, Javier Gutierrez, Teresa Saponangelo, Edgar Moreno, Diana Cavallioti... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 104 min.

Road Movie-a, bogako bi aktoreekin

Colombok garaje batean lan egiten du eta marihuanarekin trapitxeatuz osatzen du bere soldata kaskarra. Mario, hegazti zalea eta tipo xelebrea, ustekabean garajejan agertzen da, eta Colombo txofer gisa

kontratatu du Costa Bravara kurriloak ikustera joateko. Hara iristean, hegaztiak migrazio-norabidea aldatu dutela eta, Mariok Errumaniara joateko proposamena luzatu dio Colombori.

Eskerrik asko denboraldian zehar gurera gerturatu zareten guztioi!
Gogoratu kupel desberdinetako sagardoa botilan edo txotx mugikorrean izango duzuela eskuragarri urte guztian zehar.

ALTUNA
SAGARDOTEGIA - SIDRELLA

Txotx bukaera: Apirilak 28, igandea
Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia